

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

2011-2012

Lehen Hezkuntzako 4. maila

Hizkuntza gaitasuneko proba
Idazmena zuzentzeko irizpideak

Hizkuntza gaitasuneko proba maiatzean eginen zaie Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiei. Aurreko ikasturteko probekin alderaturik zenbait berritasun ditu aurtengoak. Irakurriaren ulermeneko testu eta galderekin batera, bukaeran idazlana jarri da. Ikasleei eskatuko zaie testu bat idazteko eta hartan kontatzeko aurretik irakurtzeko proposatu zaien zerbaiten gaineko istorio bat. Beraz, narrazio testu bat sortu behar dute, aldeztu aurretik emandako informazio batetik abiatuz.

Ikasle gutxi batzuekin egin den proba pilotuan ikusi dugu zati hau irakurritakoa ulertzeko zatia baino zailagoa izan dela. Datu honek Hezkuntza Departamentuak eta Espainia mailan Hezkuntza Ministerioak egindako beste ebaluazio batzuetatik ateratako informazioa berresten du. Oro har, testuak sortzeko lana testua ulertzekoa baino zailagoa da.

Mintzamenarekin eta ulermenarekin batera, irakurketa eta idazketa komunikazio gaitasunaren bi ardatzak dira. Dimentsio horiek erlazionaturik daude eta haietako bat lantzen den bakoitzean besteak hobetu egiten dira.

Dokumentu honetan hiru eranskin sartu dira, irakasleen lagungarri. I. eranskinean probako idazlana zuzentzeko irizpideak bildu dira. 2009. urtean *Testu idatziak zuzentzeko orientabideak* izeneko argitalpena bidali zuen Hezkuntza Departamentuak, Lehen Hezkuntzako irakasle taldeek laneko eta prestakuntzako dokumentu modura erabil zezaten. Hezkuntza Departamentuko webgunean dago:

Testu idatziak zuzentzeko orientabideak [\[PDF\]](#)

<http://www.pnte.cfnavarra.es/publicaciones/pdf/korreksion.pdf>

I. eranskineko irizpideak aipatutako dokumentutik atera dira, lana errazteko sinplifikatu badira ere. Horretaz gainera, estandar edo maila bat ezarri da, hain zuzen ere ikasleek laugarren maila bukatzen dutenean eskuratu beharko luketena.

II. eranskinean aurreko irizpideen arabera jasotako bi testu zuzendu sartu dira, adibide modura. III. eranskinean ikasleekin testu idatziak sortzeko iradokizun zenbait bildu dira. Nahi genuke informazio hau interesgarri eta erabilgarria izatea irakasleendako.

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua
Ebaluazio Atala

I. eranskina

Idazmena zuzentzeko irizpideak

Lehenik, lana zuzentzen denean puntuazioak ematen dira alderdi hauetan:

- Aurkezpena eta ortografia
- Istorioaren koherentzia
- Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Alderdi bakoitzari 1etik 4rako puntuazioa emanen zaio, aurrerago adierazten diren irizpideen arabera, eta behar den maila lortuko da, Nafarroako lagin batean proba ezarri ondoren ezarritako puntuazio tarteen arabera.

	Puntuazio tarteak
1. maila	0 - 4
2. maila	5 - 7
3. maila	8 - 10
3+ maila	11 - 12

Jarraian, benetako idazlanak jarri dira, zuzenduak eta ezarritako irizpideen arabera puntuazioa eman zaienak.

	1. puntuazioa	2. puntuazioa	3. puntuazioa	4. puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso desegokia ziklorako. Idazkiaren aurkezpena txarra da akats ortografikoak asko dira.	1. puntuazioaren (puntuazio desegokia) eta 3. puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 3. mailaren eskakizunetako hiru betetzen ditu.	Ziklo honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> • Garbi idatzita dago (ez da urraturik...) • Letra argia eta erregularra da. • Marjinak ongi zehazturik daude. • Ortografia: bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s idazterakoan egindako 5 akatseko 1 kontatzen da), testu laburrak direnean (1-15 lerro). Zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean. 	Bikaintasuna erakusten du, zikloan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.
Istoriaren koherentzia	Oso desegokia ziklorako. Koherentziarik eta egiturarik gabeko istorioa kontatu du. Edukiari dagokionez, justifikatu gabeko jauziak daude.	1. puntuazioaren (puntuazio desegokia) eta 3. puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 3. puntuazioko eskakizunetako lau betetzen ditu.	Ziklo honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> • Egitura argia: aurkezpena, korapiloa eta amaiera. • Hiru paragrafo ditu, gutxienez. • Bilakaera tematikoa: ez da perpaus batzuetatik besterako jauziarik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsik ere; istorioa erraz segitzen da. • Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. • Perpaus batzuk besteekin ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). • Pertsonaiak eta haien ekintzak ongi zehazturik daude (badaki zeinek zer egiten duen). 	Bikaintasuna erakusten du, zikloan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko eskakizunak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkiak ezaugarri hauek ditu: sormena, argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (orduan; geroago; hala ere, etab.; ez da behar ez den errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa).
Zuzentasun gramatikala	Oso desegokia ziklorako. Testua ez da egituratu perpaus argiro zehaztu eta bereizietan. Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi. hitz egiten duen bezala idatzi du. Akats gramatikal asko egin ditu.	1. puntuazioaren (puntuazio desegokia) eta 3. puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 3. puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Ziklo honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> • Sintaxi aldetik ongi eraturiko perpausekin egituraturako idazkia. • Aditz-denborak zuzen erabili ditu. • Ez du komuntadura akatsik (ergatiboa, plurala, deklinabideak...) • Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. • Argi eta garbi bazterrean utzi du lagunarteko eta ahozko hizkuntza. • Pertsonaiak eta ekintzei buruzko informazio interesgarria ematen duten adjektiboak eta adberbioak erabili ditu. 	Bikaintasuna erakutsi du, zikloan eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko eskakizun guztiak (6) bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkian ez da akats gramatikalik, hiztegia aberatsa da eta sintaxia menderatzen dela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testuak oso ongi idatzita daude, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.

Oharra: "0" puntuazioa soilik eman da ikasleak ez badu lana egin.

II. eranskina

1. adibidea

Kattalin izeneko neska bat bati bezala ardiak
belaitan eraman zuen.

Jas. Behar zenean zentateen kasiz:

- 1,2,3,4... gero Katuratu zen bat gaita zela eta
bilatzen hasi zen gero jas zion mendira zete
uste zuen horate jas zela. Eta horare zen
mendian zegoen Kobazulo baten sarreran andre
batekin eta andreaki eman zion:

- Gelditu nahi duzu nirekin gero "rekompensa"
bat emango dizute.

Zukto pasa etagero bazeukien gauza arnita
eta andreak ikatzen bat eman zion eta
desasentuz gero ikatzen berria biberitu zen
eta ematen etxe bat eta ardi batzuk.

Idazkiaren aurkezpena eta ortografia egokiak dira. Testuaren egitura aski argia da nahiz eta perpausak lausoak eta ez oso ongi lotuak izan. "Eta" eta "edo" lokailuez lotutako perpaus luzeegiak egiteko joera du. Erabiltzen duen hiztegia oinarritzkoa da eta erabiltzen duena ongi erabiltzen du. Sintaxiaren ikuspuntutik, erabilitako esamoldeak soilak eta gutxi landutakoak dira. Komaren bat eta puntuazio zeinuren bat ahaztu du.

2. adibidea

Behin batean Aralar inguruko herri batean
 Kattalin izeneko neska bat bizi zen, familiarik ez
 zuena. Ardiak zaintzen zituen egun batez etxera joate
 rakoan ardiak zen batean hasi zen, bat, bi, hiru, lau, bost,
 hamarika, hamabi, hamazazpi, hemezortzi eta...
 Ardi bat falta zitzaizkion konturatu zen. Orduan
 ardia bilatzeari ekin zion eta mendi gailurrean
 aurkitu zuen. Kobazulo batean sartzean emakume
 batek ondoan, Emakumea urrezko artile batekin haria
 egiten ari zen emakume horren izena Mari zen.
 Mari Kattalini esan zion berarekin geratzen bazen
 luzaeran ongi ordainduko zuela. Kattalin zazpi
 urte geratu zen Mariarekin eta zazpi urte horietan
 ogia egiten, landaroen propietateak bereizten eta
 animalien hizkera ezagutzen. Egun batean
 Mari Kattalini joan behar zela esan zion eta ikatz
 puska handi bat eman zion. Kobazulotik irteten zenean
 ikatza ura bihurtu zen eta Kattalinek nahi izan zuen
 gustu erosi zuen.

Testua oso ongi idatzita dago 4. mailako ikaslea dela kontuan izanik. Ikus daitekeenez, gorago deskribatutako 3. eta/edo 4. puntuazio irizpideak betetzen ditu, ziklo honetan izan beharko litzatekeen 3. maila gainditzen du eta 3+ mailan sartu beharko litzateke. Kategoria guztiak bikain garatu ditu; ortografia eta aurkezpena oso ongi daude; hiztegia aberatsa, jatorra eta egokia, perpaus landuak egiten ditu, eta sintaxia menderatzen duela erakusten du. Bakarrik komaren erabileran akatsen bat aurki dezakegu. Baditu, esate baterako, honelako perpausak: "ardia bilatzeari ekin zion"....". Testua nahiko luzea dela ere kontuan hartu behar dugu.

III. eranskina

Ikasleen testu ekoizpena hobetzeko orientabideak

Sarrera

Hezkuntza Departamentuak zenbait urtez ebaluazio probak egin ditu eta haietan idazketarekin zerikusia duten lanak sartu dira. Ebaluazio horien azterketatik testuen ekoizpenean hobetu daitezkeen alderdien gaineko ondorioak atera daitezke. Beharbada ikastetxean jadanik egina dute ikasleekin modu zehatzagoan diagnostiko hau eta testu idatzien ekoizpena hobetzeko ikastetxeko plana ezarria dute. Hala bada, ez da atal hau irakurtzeko beharrik izanen edo haren diagnostikoaren kontraste moduan erabil daiteke.

Hemen azaltzen diren orientabideek ez dute inongo metodologia zehatzarekin edo testu gramatikako ikusmolde teorikorekin bat egiten, uste baitugu ikastetxeei dagokiela zehaztapen eta konpromiso hori erabakitzea. Hori dela-eta, ez da erabili azken hamarkada hauetan asko garatu diren hizkuntza zientzietatik ateratako terminologia teknikorik eta kontzeptu teorikorik.

Orientabide hauek erabiltzea norberaren kontua da, baina zalantzarik gabe taldean lan eginez gero emaitza oparoa eta eraginkorragoa izanen da. Irakurtzerakoan komeni da ikasleen benetako testuak aurrean izatea eta orientabideetan adierazitakoa errealitatearekin bat datorren egiaztatzea.

Bada aski bibliografia gaiaren gainean, baita aski material eta prestakuntza proposamen ere. Harremanetan jar daiteke Irakasleendako Laguntza Zentroekin (ILZ) eta haietan orientabideak eta bibliografia bilatu. Era berean, asko ikas daiteke irakasleen jardunbide egokietatik. Horregatik, taldean lan egitea baliagarria izan daiteke irakaskuntzako trebetasunak eta estrategiak garatzeko.

Irakasteko (eskola emateko) garrantzitsua da argi izatea kurtso edo ziklo jakin bateko ikasleek zer maila lortu behar duten (zenbait hezkuntza sistematan estandar moduan ezagutuak). Irakasleak puntu hau argi duenean, jakinen du maila hau lortzeko zer egin ikasle bakoitzarekin eta lanerako modurik egokiena bilatuko du (metodologia, baliabideak, ebaluazioa, etab.).

Orientabide praktikoak

1. Idazteari beldurra galtzea

Lehen helburua da ikasleek idazteari beldurra galtzea. Idazten idatziz ikasten da eta gida onaren eta irakaslearen laguntzaz. Kopurua ez da funtsezkoa, baina garrantzitsua da "gauzak idatziz esatea"; pixkana-pixkanaka eta laguntzarekin gero eta hobeki esanen diren gauzak.

2. Idazkien aurkezpena zaintzea ere garrantzitsua da

Ikasleei behin eta berriz azpimarratu behar zaie idazkiak txukun aurkeztu behar dituztela: marjina zehaztuak, letra argi eta irakurgarria, etab. Aurkezpenak balditzatzen du irakurleari testuak sortzen dion lehen inpresioa.

3. Ortografiak ez du garrantzia galdu

Gaur egun beharbada ortografia ez da testu idatzien ekoizpeneko alderdirik garrantzitsuena. Ordenagailuko programek duten zuzentzaile ortografikoak estuasun askotatik ateratzen laguntzen du. Hori hala izanik ere, ortografia eta idazkia forma aldetik zuzena izatea testuaren *aurkezpen gutuna* dira. Horregatik, ortografia akatsik gabe idaztea helburu garrantzitsu izaten segitzen du. (Gutxi gorabehera hamar ikasletik lauk arazoak ditu ortografiarekin, behin betiko proba hobetzeko egindako ikerketa pilotuaren arabera).

4. Testua paragrafotan antolatu behar da

Adin honetako ikasleek testu osoa paragrafotan bereizi gabe idazteko ohitura dute. Jakina; ez da zerbait mekanikoa (zenbait puntu eta aparte sartzea); ikasleei esan behar diegu paragrafo bakoitzak hurrengo paragrafoan elkarren artean erlazionatutako ideiak bildu behar dituela, hurrengo paragrafoan sartutakoak ez bezalakoak. Gutxienez hiru paragrafo idatzi behar dituzte; hori da eskatu den gutxieneko maila. Ikasle askok ez dute testua paragrafotan bereizten.

5. Egitura argia: ikasgelan landu beharreko zerbait

Adin honetako ikasleek idazten duten bitartean idatzi beharrekoa pentsatzen dute eta horren ondorioz sortutako testua ez da oso landua eta ahozko hizkuntzaren ezaugarri asko ditu. Horregatik, beharrezkoa da testuaren plangintza mentala egitea, hau da, paperean idazten hasi baino lehenago alde aurretik ikasleek "buruz idatzi" behar izan dute, modu oinarritzkoan bada ere. Gomendio ona da ideiak anotatzeko eta antolatzekeo papera edo ordenagailua erabiltzea eta horrek idazkien kalitatea hobetuko du. Idazten hastean eta nola edo halako trebetasuna izan arte, komeni da ikasleek laguntza formalak izatea. Esate baterako, narrazio testuetan aurkezpena paragrafo batean egitea, bilbea edo garapena bizpahiru paragrafotan antolatua eta amaiera paragrafo batean edo bitan. Ildo xume hau oso lagungarria gertatuko zaie hasi berritan ikasleei.

6. Osagaien arteko oreka izanen duen testua

Narrazio askotan antzematen da haurrek egoeraren eta pertsonaien aurkezpen soila egiten dutela, ekintza dramatikoaren korapilo edo garapenera berehala igarotzen direla eta bat-batean bukatzen dutela, presaka eta deus gutxi prestatu gabe. Ematen du idazten nekatu direla eta bukatzeko presa dutela. Aurreko puntuan adierazi den bezala, alde aurretik emandako ildo batekin eta plangintza on batekin lan eginez gero, idazten ikasteko oso lagungarria izanen da.

7. Testua: testu-zatiak baino zerbait gehiago

Testua ez dute soilik testu-zatiek osatzen. Testu gramatikak garatutako ideia hau erabil daiteke ikasleei idazten irakasteko; oso interesgarria da. Testu on batek ezaugarriak bi dira: koherentzia eta kohesioa (nahi baduzu, bi kontzeptu linguistiko horien gaineko dokumentazio ugari dago Interneten). Garrantzitsua da ikasleek zein den idatzi duten testuaren koherentzia maila. Erraz jarraitzen da historia hasieratik bukaerara? Testua modu naturalean jarraitzen da hutsean "jauzi" gehiegi egin gabe? Pertsonaiak eta haien ekintzak ongi zehazturik daude? Alderdi hauek guztiak testu baten koherentiaren adierazle onak dira. Norbaitek bere testua irakurtzen duenean, bere historiaren barnean murgildurik egoten da eta zaila gertatzen zaio hartatik urruntzea eta galdera horiei erantzutea. Horregatik, hobe da testuak trukatu eta besteen testuak irakurtzea. Kanpoko irakurleak izan daitezke ikaskideak, irakaslea, anai-arreba zaharragoak eta gurasoak. Era berean, komeni da idazkiari kohesioa ematen dioten osagaiak kontuan hartzea, hala nola, hitzen errepikapena edo hitzak erreferentzia-osagaiak (sinonimoak, determinatzaileak, izenordainak...) ordezkatzeko, aditzen arteko erlazioa, eta perpausak eta paragrafoak lotzeko balio duten osagaiak (lokailuak)...

8. Perpausak ikasgelan lantzea

Aurreko puntuan ideia hau azpimarratu da: testua ez da soilik perpaus multzo bat. Hori zuzena izanik ere, adin honetan behin eta berriz azpimarratu behar da oso garrantzitsua dela ongi eraikitako, zentzu osoko eta puntuez bereizitako perpausak idaztea. Perpausen maila ahoz eta idatziz lan daiteke. Nolanahi ere, garrantzitsua da haurrak jakitun izatea maiz anbiguotasunak egiten dituztela, ahoz adierazi beharrekoa den informazio inplizitua jakintzat ematen dutenean.

9. Argitasuna, ordena eta zehaztasuna: testuaren giltzarriak

Adin honetako ikasle gehienek ordenarik gabe eta modu nahasian idazten dute eta horrek agerian uzten du haien pentsatzeko modua ez dela oso zehatz edo antolatua. Idazketa oso baliagarria da prestakuntzarako, idazteak zehaztasuna, ordena eta argitasun mentala izatea eskatzen dituelako. XVI. mendean Francis Bacon filosofoak honelaxe zioen: "Irakurtzeak osotu egiten du gizakia, hitz egiteak espeditiboa egiten du eta idazteak zehatza bihurtzen du". Garrantzitsua da alderdi hauetan lantzeko helburuak ikasgelan ezartzea. Era berean, komeni da haurrak jakitun izatea nola idazten duten eta nola izan daitezkeen argiakoak, zehatzagoak eta ordenatuagoak.

10. Ez ahaztu sintaxiaz

Adin honetako ikasleek bata bestearekin lotutako emendiozko perpausak idatzi ohi dituzte (*eta gero... eta ondoren ... eta ...*). Beharrezkoa da haurrei azpimarratzea puntuak jarri behar dituztela perpausak batzuk besteetatik bereizteko eta, orobat, perpausak lotzeko haurrek duten joera saihesteko. Horretaz gainera, komeni da ikasleak ohitzea perpaus bakoitza bere aldetik gainbegiratzeko, sintaxi aldetik ongi eraturik dagoen ikusteko. Mendeko perpausak (kausazkoak, erlatiboak, baldintzazkoak, etab.) erabiltzen hasi behar dute, pixkana-pixkanaka. Ikasleei oso zail egiten zaie zuzentasun gramatikala menderatzea..

11. Aditz-denborak zuzen erabiltzea

Adin honetan oraindik ikasle batzuek aditz-denboren arloan akatsak egiten dituzte. Ikasle batzuek lehenaldia eta orainaldia oker konbinatzen dituzte eta horren ondorioz testu idatziak aditzen aldetik nahasiak eta ez oso koherenteak dira. Ikasleek honetaz guztiaz konturatu behar dute.